

txoritxoari mokoka

IRAK ETA ESPAINIAKO KONGRESUA

Amagoia Iban

Nazioartekoan ere ez

Romualdo Bermejo, Felipe Gonzalez, Paul Nicholson eta Rosana Pastor Irak militarki erasotzeko planen inguruan aritu ziren hizketan astelehen gaueko *Políticamente incorrecto* saioko mahaian. Lehendabiziko biak, nazioarteko harremanetan adituak dira. Hirugarrena, EHNE sindikatu-kidea, eta aktorea laugarrena. Denen artean eskaini zituzten egoeraren argazki robotak, inongo zalantzarik gabe, zer pentsatua ematen du. Kosovon Iraken gertatzearen den gauza bera gertatu zela entzun genuen, eta Bushen planen

Neurrira eginiko jantzia

Gero eta alferrikakoago bihurtzen ari da TVEren programazioari erreparatzea. Aurrekoan telesail bat kendu eta dokumental didaktiko bat sartu zituzten, eta, atzorako, Aznar Espainiako Kongresuan egitekoa zen agerraldia iragarria zuten. Ordubetekoaren aurreikuspena. Jarraian, Andaluziako Txirrindulari Itzulia ematekoak ziren. Oposiziokoei erreplikarako baimena atzo goizean bertan onartu zieten, baina, ordu mordoko emanaldia ikusi genuen TVE2n. Neurrira eginiko eztabaidak eta neurrira eginiko programazioa.

aurka agertu diren estatuburu gehienak ere interes propioak zaindu nahian dabilzala. Frantzia Boli Kostan ezartzen ari den ildo kolonialista ere gogoratu zuten. Eta Ekialde Hurbila. Eta Saddam Husseinen ibilbidea. Inperialismoa izan zuten hizpide, eta gaur egungo nazioarteko panorama NBK eta NATOk daukaten sinesgarritasuna. Baita demokrazia eredu berriraketa baten beharra ere, hiritarrak eta herriak ordezkatzeko sistema akats nabarmenak agerian daudelako. Bermejo katedradunak biribildu zuen amaieran gonbidatu guztien modu batera edo bestera esana zutena: legea eta justizia ez direla berez sinonimo. Ezta nazioartekoan ere.

LABURAEAN

'Hamalau baietz' ikuskizun-kantaldia emango dute gaur gauean ETB1en

1965-1975eko hamarkadan euskal kulturaren alde aritutakoei zuzendutako omenaldia egin zuen Korrika Kulturarak igandean *Hamalau baietz* ikuskizun-kantaldian. Donostiako Kursalean eginiko ekitaldi hori ETB1en ikusi ahal izango da gaur 23:20an. Dantza, kantua, antzerkia, zinema eta garaiko protagonisten lekukotasunak jasotzen dituzte bertan. Olatz Beobidek zuzendutako lanean, aurkezleak Ainhoa Aierbe, Inaxio Tolosa, Mireia Gabilondo, Joseba Apaolaza eta Idoia Sagarzazu izan ziren.

Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan Espainian baino gehiago ikusi zen Eurovisionerako aukeraketa

Ainhoa Cantalapiedra Galdakaoko gazteak irabazi zuen TVEko *Operación Triunfo*2 lehiaketa, baina azkenean ez du Espainia ordezkatzeko Eurovision jaialdian. Beth kataluniarrak jaso zituen boto gehien (%45) eta bizkaitarra hirugarren gelditu zen (%24). Herenegungo saioak %40,5eko audientzia izan zuen Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan (Espainian baino hiru puntu gehiago).

Aljeriako gerrari buruzko dokumentalaren bigarren zatia gaur, Arte katean

Andre Gazutek eginiko *Pacification en Algerie* dokumentalaren bigarren zatia emitituko dute gaur Frantziako Arte katean (20:40an). *Les mercredis de l'histoire* saioaren barne ikusi ahal izango da lan hori. Bertan, hainbat soldadu ohi frantziarren testigantzak jasotzen dituzte.

ETB1. Betizu Taldeak hainbat kontzertu emango ditu 'BT 1.0' aurreneko diskoa aurkezteko

Lau gazte arrakastaren bidean



Betizu taldeko lau kideak, Joseina Etxeberria eta Mikel Erentxunekin batera, BT 1.0. diskoaren aurkezpenean, ETBko Miramongo egoitzan.

ETB1ek ostiralean emango du diskoa aurkezteko gala berezia, gaueko 21:00etan

Urtzi Urkizu | DONOSTIA

Ainara Epelde, Leire Merino, Mikel Zubimendi eta Uxue Rodriguez izan ziren Betizu Taldea osatzeko ETBko lehiaketa irabazi zutenak, eta dagoeneko diskoa grabatu dute. Diskoak *BT 1.0* izena du, eta atzo eguerdian aurkeztu zuten komunikabideen aurrean Donostiako Miramongo egoitzan. Aurkezpenean, Joseina Etxeberria Euskadi Gazteko esataria eta Mikel Erentxun musikaria izan ziren gaztetxoaren aldamenean.

Diskoa Euskal Herriko ikusentzuleei aurkezteko, ostiral

gauean ETB1ek gala berezi bat emango duela iragarri zuten. Datorren astelehenean, bestalde, disko denda eta merkataritza guneeetan egongo da salgai *BT 1.0* lana.

Kontzertu handiak Bilbon eta Donostian martxoan

Betizu Taldeko lau kideek bira hasiko dute aurki Euskal Herriko hiri eta herrietan zehar. Gaztetxoak bi kontzertu handienekin ari dira pentsatzen: «Une honetan gehien arduratzen gaituzten kontzertuak bi dira: Donostian martxoaren 15ean emango duguna eta Bilbokoa, martxoaren

29koa. Anoeta eta Casillako kiroldegia goraino bete behar ditugu, eta seguru-lortuko dugula», esan zuten neska-mutikoei. Aurkezpen birak ekainaren 15a arte iraungo du.

Rodriguez bergararra, Epelde azpeitiarra, Merino zizuritarra eta Zubimendi zumaiarra gustura gelditu dira diskorako aukeratutako abestiekin. «Diskoko 13 kantak asko gustatzen zaizkigu, eta oso ondo pasa dugu grabatzen. Hala ere, martxa gehien dutenak eta emanaldietan gehien abesten ditugunak *Zuzen-zuzen* eta *Esaidazu* dira. *Airez Aire* ere berezia da, guretzat ereserki modukoa, lehiaketaren bukaeran hori kantatu baikenuen», diote euskal kantari gazteek. Aipatutakoez gain, *Janari goxoa*, *Ama*,

Ez nazazu zapaldu eta *Mendian gora* abestiak daude Betizu Taldeko diskoan. Hilabete inguru iraun dute diskoaren produkzio eta grabazio lanek. Era berean, Betizu Taldeko kideek hainbat bideoklip grabatzeko aukera izan dute. ETBk eta Betizu klubak, bestalde, telefono bidezko salmenta sistema ezarri dute. Hainbat beherapen egongo dira Betizu klubeko kideentzat eta diskoa etxean jasotzeko aukera izango dute.

Betizu Taldeko saioaren harerarekin pozik dira ETBn eta lehiakide berriak hautatzeko *casting*-a martxan jarri dute dagoeneko. Saioko zuzendari Txetxu Altolagirrek EGUNKARIA-ri esan dionenez, «bigarren lehiaketan hainbat aldaketa egongo dira, baina ildo berari jarraituz».